Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5913

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 3koa, Ingurumeneko sailburuordearena, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpena zehazten duena eta zink urtuzko bainuan murgilduz metalen eraldaketarako instalazio berri baten proiekturako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Oka udalerrietako Subillabide industrialdean eta General Alavesa de Galvanizados SL enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2007ko abenduaren 26an, General Alavesa de Galvanizados SL enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Oka udalerrietan zink urtuzko bainuan murgilduz metalezko piezak beroan galbanizatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen:

«Oinarrizko proiektua. General Alavesa de Galvanizados, SL enpresaren ingurumeneko baimen bateratua».

«General Alavesa de Galvanizados SL enpresaren ingurumeneko baimen bateraturako proiektuaren laburpen ez-teknikoa».

2008ko otsailaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzak kaleratutako agiriaren arabera, aurkeztutako proiektuak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio banakatuaren prozedura bete behar du, proiektuen ingurumenaren gaineko eraginaren Ebaluazio Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoa betez.

2008ko otsailaren 14an, aipatu Zuzendaritzak hainbat erakunderi txostenak eskatu zizkien, ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa bere osotasunean eta xehetasunez zehaztu ahal izateko. Zehazki, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Okako udalei, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Departamenduari, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

5913

RESOLUCIÓN de 3 de abril de 2009, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula declaración de impacto ambiental y se concede autorización ambiental integrada del proyecto de nueva instalación de transformación de metales mediante la inmersión en baño de zinc fundido, promovido por General Alavesa de Galvanizados, S.L. en el polígono industrial de Subillabide en los términos municipales de Vitoria-Gasteiz e Iruña de Oca.

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 26 de diciembre de 2007, General Alavesa de Galvanizados, S.L. solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de galvanizado en caliente de piezas metálicas por inmersión en baño de zinc fundido, en los municipios de Vitoria-Gasteiz e Iruña de Oca. La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

«Proyecto básico. Autorización ambiental integrada de General Alavesa de Galvanizados, S.L.»

«Resumen no técnico del Proyecto para la autorización ambiental integrada de General Alavesa de Galvanizados, S.L.»

Con fecha 14 de febrero de 2008, la Dirección de Planificación, Evaluación y Control Ambiental del Gobierno Vasco emitió comunicado en el que se señalaba que en virtud de lo dispuesto en el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, el proyecto presentado debe someterse al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental.

Con fecha 14 de febrero de 2008 la mencionada Dirección solicitó de diferentes organismos que se emitiera informe en orden a determinar la amplitud y el nivel de detalle del Estudio de Impacto Ambiental. En concreto se consulta a los Ayuntamientos de Vitoria-Gasteiz e Iruña de Oca, al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, al Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, al Departamento

Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzari eta Uraren Euskal Agentziari kontsulta egin zitzaien.

2008ko irailaren 25ean, General Alavesa de Galvanizados SL enpresak, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Oka udalerrietako Subillabide industrialdean, zink urtuzko bainuan murgilduz metalen eraldaketarako instalazio berriaren proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren azterketari zegozkion agiriak aurkeztu zituen; hain zuzen ere, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko araudiak xedatutakoa betez, nola ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruz indarrean dagoen araudiak xedatutakoa betez.

2008ko azaroaren 25ean, aurretiaz ingurumen organoak hala eskatuta, sustatzaileak espedientea osatu zuen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2008ko abenduaren 1ean emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, General Alavesa de Galvanizados SL enpresak sustatutako proiektua eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko abenduaren 19an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2009ko urtarrilaren 11n, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion. Halaber, formatu elektronikoan zegoen espedientearen oinarrizko dokumentazioa herritarren esku jarri zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren web orrian.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluek xedatutakoa betez, 2009ko otsailaren 3an Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Iruña Okako Udalari, Araba Garapen Agentziari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Departamentuari, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzari eta Uraren Euskal Agentziari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

de Sanidad del Gobierno Vasco, al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, a la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco y a la Agencia Vasca del Agua.

Con fecha 25 de septiembre de 2008 General Alavesa de Galvanizados, S.L. presentó la documentación correspondiente al estudio de impacto ambiental del proyecto de nueva instalación de transformación de metales mediante la inmersión en baño de zinc fundido en el polígono industrial de Subillabide en los términos municipales de Vitoria-Gasteiz e Iruña de Oca, y ello en cumplimiento de lo dispuesto tanto en la normativa relativa a la prevención y control integrados de la contaminación como en la normativa vigente en materia de evaluación de impacto ambiental.

Con fecha 25 de noviembre de 2008, el promotor completa el expediente, previo requerimiento del órgano ambiental.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por Resolución de 1 de diciembre de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por General Alavesa de Galvanizados, S.L., junto con el estudio de impacto ambiental, en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Álava, ambas con fecha de 19 de diciembre de 2008. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 11 de enero de 2009 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes. Asimismo, la documentación básica del expediente existente en formato electrónico se puso a disposición de los ciudadanos en la página web del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Una vez culminado el trámite de información pública, se constata que no se han presentado alegaciones.

En aplicación de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, la Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco solicita el 3 de febrero de 2009 informe al Ayuntamiento de Iruña de Oca; a Álava Agencia de Desarrollo; al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, al Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, a la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco y a la Agencia Vasca del Agua, con el resultado que obra en el expediente.

2009ko martxoaren 17an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa General Alavesa de Galvanizados SL enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpen-Proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. General Alavesa de Galvanizados SL enpresaren kasuan, hondakinak sortzeko baimena eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkionak behar ditu. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Con fecha 17 de marzo de 2009, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente se ha puesto a disposición de General Alavesa de Galvanizados, S.L. incorporando la Propuesta de Resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presente autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha Ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002 de 1 de julio, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el Anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de General Alavesa de Galvanizados, S.L. tales autorizaciones se circunscriben a la de producción de residuos, y entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y a la materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak betez, General Alavesa de Galvanizados SL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horrez gain, txostenak eskatu zaizkie Iruña Okako Udalari, Araba Garapen Agentziari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Departamentuari, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzari eta Uraren Euskal Agentziari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

Bestalde, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa behar dute nahitaez Legearen 1. eranskinean jasota egon eta Euskal Autonomia Erkidegoan burutu nahi diren plan eta proiektu publiko zein pribatuek. Prozedura hori ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenarekin amaitzen da, direlako proiektuak gauzatzeko edo, behar denean, baimentzeko, emango den ebazpenaren aurretik egingo dena.

Era berean, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11.4 artikuluak xedatutakoa betez, autonomia erkidegoek ahaleginak egingo dituzte ingurumeneko baimen bateratuaren barruan dauden ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko erkidegoko araudian ageri diren jarduerak edota beste figura batzuk sartzeko, betiere horrelakorik eska badaiteke, eta horretarako eskumena autonomia erkidegoari badagokio.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la citada Ley 16/2002, de 1 de julio, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas previsto en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la Resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones citadas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a General Alavesa de Galvanizados, S.L. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, habiéndose solicitado, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Iruña de Oca (Álava), Agencia de Desarrollo, del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, de la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco y de la Agencia Vasca del Agua.

Por otro lado y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, deben someterse preceptivamente al correspondiente procedimiento de evaluación de impacto ambiental los planes y proyectos, bien fueran públicos o privados, que encontrándose recogidos en el anexo 1 de la Ley, se pretendan llevar a cabo en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, procedimiento que culmina con una declaración de impacto ambiental a formular con carácter previo a la Resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

En aplicación, asimismo, de lo dispuesto en el artículo 11.4 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, las Comunidades Autónomas dispondrán lo necesario para posibilitar la inclusión en el procedimiento de otorgamiento de la autorización ambiental integrada de las actuaciones en materia de evaluación de impacto ambiental u otras figuras de evaluación de impacto ambiental previstas en la normativa autonómica, cuando así sea exigible y la competencia para ello sea de la Comunidad Autónoma.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen aurreikuspenak betez, Ingurumen Organoak neurriak hartu ditu ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio-arloko jarduerak ingurumeneko baimen bateratuko prozeduraren barruan txertatzeko. Alde horretatik, prozedura horren izapideetan proiektuak izan ditzakeen ondorio guztiak modu integratu batean aztertu dira, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren eta uztailaren 1eko 16/2002 Legean jasotako ingurumeneko arauen ikuspegitik, proiektuaren bideragarritasuna zehazteko. Integrazio hori garbi islatzen da ingurumeneko baimen bateratua emateko ebazpen-proposamenaren aurretik proiektuaren gainean egiten den balioespen orokorrean. Proposamenean bezala, ebazpen honetan sartuta dago aipatutako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozesua. Horretarako, proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren aldeko adierazpena egiten du bere lehenengo atalean, eta, ingurumen ondorioetarako soilik, aukeratutako kokapenean proiektua bideragarria dela aipatzen du; proiektua zein baldintzatan gauzatu behar den ere ezartzen du, uztailaren 1eko 16/2002 Legea aplikatuz ezarriko zaizkion neurri zuzentzaileekin bat.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2001eko abenduko metalen eraldaketaren sektoreari buruzko BREF agiriaren («Reference Document on Best Available Techniques in the Ferrous metal Processing Industry») edukiak kontuan hartu dira.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta General Alavesa de Galvanizados SL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Azaldutakoaren arabera goian adierazitako izapideak amaitu dira eta organo honek du ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena eta ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskumena, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

En cumplimiento de las previsiones contempladas en la Ley 16/2002, de 1 de julio, el Órgano Ambiental ha adoptado las medidas encaminadas a una efectiva inclusión de las actuaciones en materia de evaluación de impacto ambiental en el procedimiento de autorización ambiental integrada. En este sentido, en los trámites del citado procedimiento se ha considerado de forma integrada el conjunto de los posibles impactos derivados del proyecto en orden a determinar la viabilidad del mismo desde la perspectiva de la normativa de evaluación de impacto ambiental y la referida al resto de las prescripciones medioambientales contenidas en la Ley 16/2002, de 1 de julio. Dicha integración encuentra nuevamente su reflejo en la valoración global del proyecto que antecede a la Propuesta de Resolución de otorgamiento de autorización ambiental integrada. La presente Resolución, en la misma forma en que lo hizo la mencionada Propuesta, viene a incorporar el resultado del mentado proceso de evaluación de impacto ambiental a su contenido a través de la formulación, en su apartado Primero, de una declaración de impacto ambiental de carácter favorable que viene a pronunciarse, a los solos efectos ambientales, sobre la viabilidad del proyecto en la ubicación elegida, fijando las condiciones en las que el mismo debe realizarse, condiciones que vienen a formar un todo coherente con las medidas correctoras que deben imponerse al citado proyecto como consecuencia de la concreta aplicación de la Ley 16/2002, de 1 de julio.

Por último, en orden a determinar los valores límite de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF para el sector de la transformación de metales («Reference Document on Best Available Techniques in the Ferrous metal Processing Industry»), de diciembre de 2001, de la Comisión Europea.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió Propuesta de Resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por General Alavesa de Galvanizados, S.L.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas y dada la competencia de este órgano para la emisión de la declaración de impacto ambiental y la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2009ko martxoaren 17an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Erregelamendua onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplika daitekeen gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– General Alavesa de Galvanizados SL enpresak, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Okako udalerrietako Subillabide industrialdean sustatutako zink urtuzko bainuan murgilduz metalen eraldaketarako instalazio berriaren proiektuaren Ingurumenaren gaineko Eraginaren aldeko Adierazpena egitea, Ebazpen honen Hirugarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Bigarrena.– Vitoria-Gasteiz (Araba) udalerriko Manuel Iradier kaleko 3. zenbakia, behea, 01005 helbide soziala eta IFK: B-01-426.659 zenbakia duen General Alavesa de Galvanizados SL enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Oka (Araba) udalerrietan zink urtuzko bainuan murgilduz pieza metalikoak beroan galbanizatzeko jarduerarako, Ebazpen honen Hirugarren atalak ezartzen dituen baldintzetan.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.3.c kategorian «Burdinezko metalak eraldatzeko instalazioak. Metal urtuzko babes-geruzak aplikatzea, orduko 2 tona altzairu gordin baino gehiago tratatzeko ahalmena dutenak» izenekoan dago jasota.

General Alavesa de Galvanizados SL enpresa Subillabide industrialdean kokatuko da, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteiz udalerrien arteko jurisdikzio partekatuan. Instalazio berriek, guztira, 18.504 m^2-ko azalera beteko dute; horietatik, 7.780 m^2 eraikitako azalerari dagozkio eta 10.724 m^2 zolatutako kanpoko azalerari.

Prozesua, funtsean, kimikoki garbia den gainazala duten altzairuzko piezak, burdinarekin erreakzionatzen duen eta metalezko gainazalean estaldura

Vistos la propuesta de Resolución de 17 de marzo de 2009 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de Evaluación de Impacto Ambiental, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Formular declaración de impacto ambiental, con carácter favorable, del proyecto de nueva instalación de transformación de metales mediante la inmersión en baño de zinc fundido, promovido por General Alavesa de Galvanizados, S.L. en el polígono industrial de Subillabide en los términos municipales de Vitoria-Gasteiz e Iruña de Oca, con las condiciones establecidas en el apartado tercero de esta Resolución.

Segundo.– Conceder a General Alavesa de Galvanizados, S.L. con domicilio social en la calle Manuel Iradier n.º 3 bajo, 01005, Vitoria-Gasteiz (Álava) y CIF: B-01-426659, autorización ambiental integrada para la actividad de galvanizado en caliente de piezas metálicas por inmersión en baño de zinc fundido, en los municipios de Vitoria-Gasteiz e Iruña de Oca (Álava), con las condiciones establecidas en el apartado tercero de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 2.3.c Instalaciones para la transformación de metales ferrosos «Aplicación de capas de protección de metal fundido con una capacidad de tratamiento de más de 2 toneladas de acero bruto por hora» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La planta de General Alavesa de Galvanizados, S.L., se ubicará en el Polígono Industrial de Subillabide, en jurisdicción compartida de Iruña de Oca y de Vitoria-Gasteiz. La superficie total a ocupar por las nuevas instalaciones es de 18.504 m^2, de los cuales 7.780 m^2 corresponden a superficie edificada y 10.724 m^2 corresponden a superficie exterior pavimentada.

El proceso consiste básicamente en sumergir piezas de acero, de superficie químicamente limpia, en un baño de zinc fundido (a 450±10 ºC) que reacciona

sortzen duen zink urtuan (450±10ºC-tara) murgiltzean datza, korrosioaren aurkako babes hobea lortzeko helburuarekin.

Ekoizpena lerro bakarrean gauzatuko da, garraiorako instalazio automatiko baten bidez eta honako azpiprozesuak ditu:

– Garabi-zubien eta igo eta jaisteko estazioaren bidez, materiala jaso eta garraiorako instalazio automatikoan kargatzea. Instalazio automatiko hau izango da ekoizpen-lerro osoan barrena garraio automatizatuaz arduratuko dena.

– Inguruen kontrola -oxkarratuaren zabalera eta garaiera- kaptadoreen bidez (argi-barrerak).

– Ondorengo bainuetan oinarritzen den aldez aurretiko tratamendua:

+ Koipegabetzea: piezaren gainazaleko olio eta koipeak ezabatzea, koipegabetze-bainu alkalinoetan murgilduz (soda kaustikoa eta kaltzio karbonatoa).

+ Desugerketa: piezaren kanpoaldeko geruza metalikoa ezabatzea (gainazaleko oxidoak edo oker galbanizatutako piezak zinkaz estaltzea), diluitutako azido klorhidrikoaren bainuetan murgilduz.

+ Garbitzea: koipegabetzearen eta desugerketaren ondoren (kasu honetan bi fasetan), urezko bainuetan murgilduz gauzatzen dira garbiketak, koipegabetzearen eta desugerketaren bainuen likidoak arrasta daitezen saihesteko.

+ Mordentatzea: zink kloruro eta amoniozko bainuak; bertan murgiltzen dira piezak, gainazal metalikoan geratzen diren ezpurutasunak disolbatu eta xurgatzeko, desugerketa eta galbanizatuaren artean piezaren gainazalean edozein motako oxidaziorik egon ez dadin eta galbanizatuaren arragoa osoan zink-estaldura ziurtatu ahal izateko.

Aldez aurretiko tratamendu osoa guztiz kapsulatua dago; alboetako paretak eta sabaia guztiz itxita eta azidoen kontrako plakez estalita daude. Gainera, itxitura horrek ixte-hegalak dituen garabia pasatzeko arraildurak izango ditu, estankotasun garbia bermatu eta lurrunek ihes egitea saihestu ahal izateko. Sortutako lurrunak haizagailuaren bidez aterako dira eta hustu aurretik, garbiketa-dorre batean tratatuko dira. Garbiketa-dorrean berreskuratutako HCl-a berriz ere erabiliko da desugerketa-bainuetan.

Era berean, mordentatze-bainua etengabe birsortzeko sistema automatizatua izango da; bertan, pilatutako gatzak neutralizatu eta birsortu egiten dira, dekantazioaren ondoren burdina Fe(OH)3 moduan ezabatuz. Iragazitako soluzio finkagarria berriz ere mordentatze-bainura itzultzen da, eta lohiak prentsa-iragazki batean deshidratatzen dira, ondoren baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

con el hierro y forma un recubrimiento sobre la superficie metálica, con objeto de conseguir una mejor protección contra la corrosión.

La producción se realizará en una única línea a través de una instalación automática de transporte y consta de los siguientes subprocesos:

– Recepción y carga del material a través de puentes grúa y estación de elevación-descenso a la instalación automática de transporte, encargada de su transporte automatizado durante toda la línea de producción.

– Control de contornos -ancho y altura de festonado- mediante sensores (barreras de luz).

– Tratamiento previo consistente en los siguientes baños:

+ Desengrase: eliminación de los aceites y grasas de la superficie de la pieza, introduciéndola en baños desengrasantes alcalinos (sosa cáustica y carbonato cálcico).

+ Decapado: eliminación de la capa metálica externa de la pieza (óxidos de la superficie o recubrimiento de zinc en piezas mal galvanizadas) mediante inmersión en baños de ácido clorhídrico diluido.

+ Lavado: tras el desengrase y después del decapado (en este caso en dos fases) se efectúan los lavados por inmersión en baños de agua para evitar el arrastre de los líquidos de los baños de desengrase y de decapado.

+ Mordentado: baños de cloruro de zinc y amonio donde se sumergen las piezas para disolver y absorber las impurezas que quedan en la superficie metálica, evitar cualquier tipo de oxidación de la superficie de la pieza entre el decapado y el galvanizado y asegurar un recubrimiento uniforme de zinc en el crisol de galvanizado.

El conjunto del pretratamiento se encuentra totalmente encapsulado por un encerramiento de paredes laterales y techo revestidos con placas a prueba de ácidos. Además, este encerramiento dispondrá de hendiduras de paso para grúa con faldas obturadoras que garanticen una limpia estanqueidad del mismo, evitando el escape de vapores. Los vapores generados serán extraídos mediante ventilador y tratados en una torre de lavado previamente a su evacuación. El HCl recuperado en la torre de lavado es reutilizado en los baños de decapado.

Asimismo, se dispondrá de un sistema automatizado de regeneración en continuo del baño de mordentado, donde las sales acumuladas se neutralizan y se regeneran, eliminándose el hierro en forma de Fe(OH)3 tras su decantación. La solución mordiente clarificada se devuelve al baño de mordentado y los lodos se deshidratan en un filtro prensa para ser posteriormente entregados a gestor autorizado.

+ Lehortzea: piezak tunel-lehortegi batean sartzen dira hezetasuna ezabatzeko, gatzak kristaltzeko eta aurretiaz berotzeko; honela, zink-zipriztinak saihestu, zink-errautsak gutxitu, arragoan material guztien iraupen-denbora murriztu eta zink kontsumoa aurrezten da.

Lehorketa-labea aire beroaren bidez jartzen da martxan, 150 ºC-ra iritsi arte. Beroketa gas naturaleko erregailuen bidez gauzatzen da. Lehortegiaren ihes-gasak labearen berezko tximinia baten bidez bideratuko dira.

+ Galbanizatua. Lehortegitik pasatu ondoren, piezak zink urtuzko arragoan murgiltzen dira, gutxi gorabehera 450 ºC-ko tenperaturan. Zinkak murgildutako piezen gainazalarekin erreakzionatzen du, Zn-FE-zko geruzak sortuz.

Piezak murgiltzen diren bitartean, itsatsitako finkagarriak zink urtuarekin erreakzionatzen du, ke-multzoa sortuz (HCl, NH3, NH4Cl, ZnCl2). Galbanizazio-labeko ke horiek xurgatu eta iragazi egiten dira atmosferara hustu aurretik.

Lehorketa- eta galbanizazio-labeetatik eratorritako errekuntza-gasen beroa berreskuratzeko sistema bat dago, aldez aurretiko tratamenduaren eta berogailu osagarriaren gordailuak berotzeko.

+ Hoztea eta errepasatzea. Piezak giro-tenperaturan edo ur-bainuan hoztuko dira, beroa mantentzen duten piezetan Zn-Fe-zko geruzak haztea eragotziko duen hozketa azkarra lortu ahal izateko. Soilik galbanizatutako piezen % 10a prozesu hezearen bidez hoztuko dela balioesten da. Hozketa-bainu agortuak (ura eta zink-errautsak) barne mailan baliotuko dira, mordentatze- eta desugerketa-bainuetan berriz ere erabiliz.

Behin piezak hoztuta, ikuskatu, errepasatu eta paketatu egingo dira. Eskatuz gero, gainazaleko akats txikiak konpondu egingo dira; disko-makinaren bidez, edo galbanizatuaren akatsak egon daitezkeen piezaren leku zehatzetan aerosolen bidez pintura proiektatuz. Eskaeren arabera, jada galbanizatua dagoen produktua bidaltzeko prestatuko da.

+ Bidalketa.

Enpresak, urtean galbanizatutako altzairuzko 50.000 tona pieza ekoiztea aurreikusten du. Ekoizpen-lerroko azpiprozesu bakoitzerako zenbatetsitako ekoizpen-ahalmena honako hau da:

+ Secado: las piezas se introducen en un secadero de túnel para eliminar la humedad, cristalizar las sales y precalentarlas, evitando así salpicaduras de zinc, disminuyendo las cenizas de zinc, rebajando el tiempo de permanencia de los materiales en el crisol y ahorrando consumo de zinc.

El horno de secado es accionado por aire caliente hasta 150 ºC. El calentamiento se realiza por medio de quemadores de gas natural. Los gases de escape del secadero se derivarán a través de una chimenea propia del horno.

+ Galvanizado. Las piezas, tras su paso por el secadero, se sumergen en un crisol de zinc fundido a una temperatura aproximada de 450 ºC. El zinc reacciona con la superficie de las piezas sumergidas produciendo capas de Zn-Fe.

Durante la inmersión de las piezas, el mordiente adherido reacciona con el zinc fundido produciéndose una serie de humos (HCl, NH3, NH4Cl, ZnCl2). Estos humos del horno de galvanizado son aspirados y filtrados antes de su evacuación a la atmósfera.

Se dispone de un sistema de recuperación de calor de los gases de combustión procedentes de los hornos de secado y de galvanización para el calentamiento de los depósitos de tratamiento previo y calefacción adicional.

+ Enfriamiento y repaso. Las piezas serán enfriadas o bien a temperatura ambiente, o bien en un baño de agua para lograr un enfriamiento rápido que evite que las capas de Zn-Fe sigan creciendo en piezas que conservan el calor. Se estima que tan sólo el 10% de las piezas galvanizadas serán enfriadas mediante proceso húmedo. Los baños de enfriamiento agotados (agua y cenizas de zinc) serán valorizados internamente reutilizándolos en los baños de mordentado y decapado.

Una vez enfriadas las piezas serán inspeccionadas, repasadas y empaquetadas. En caso de requerirlo se repararán las pequeñas imperfecciones de la superficie mediante una amoladora, o bien la proyección de pintura mediante aerosoles, en zonas muy determinadas de la pieza donde puedan existir defectos de galvanizado. Según requerimientos, el producto ya galvanizado será preparado para su expedición.

+ Expedición.

La empresa prevé una producción de 50.000 toneladas anuales de piezas de acero galvanizadas. La capacidad de producción estimada para cada subproceso de la línea de producción es la siguiente:

Azpiprozesua	Ekoizpen-ahalmena
Unitate garraiatzailea	16 t/h
Aldez aurretiko tratamendua	15,96 t/h
Lehorgailua	15,96 t/h
Galbanizatuko labea	16,6 t/ h

Plantak, kanpoko hornikuntza-sareetatik datozen energia elektrikoa (urtean 1.200.000 Kwh-ko kontsumoa zenbatetsi da) eta gas naturala (861.000 m^3) kontsumituko ditu. Gas naturala lehorgailuan, galbanizatuko labean eta berogailu-sisteman beroa sortzeko erabiltzen da.

Plantan kontsumitutako ura, ekoizpen-prozesuetan nola prozesu laguntzaileetan, zerbitzuetan, aldageletan eta abarretan, uraren hornikuntzaren udal-saretik etorriko da. Urtean batez besteko 690 m^3-ko kontsumoa aurreikusten da. Kontsumoa 1796 m^3-ra iritsiko da hasierako betetzea eta bainu guztien berriztatze osoak gauzatzen diren uneetan.

Plantak ez du inolako industria-isurketarik sortzen: HCl duten gasen garbigailutik eratorritako urak desugerketa-bainuetan berrerabiltzen dira, konpresoreen purgaketak koipegabetze-bainuetan isurtzen dira eta beroaren trukagailu-sistemaren purgaketak mordentatzearen upelera isurtzen dira. Plantan sortutako hondakin-urak (ur sanitarioak) Subillabide industrialdean dagoen ur beltzen sarera bideratuko dira. Halaber, euri-ur garbiak industrialdeko euri-uren sarera isuriko dira.

Plantak atmosferara isurtzeko 3 foku izango ditu: aldez aurretiko tratamenduko prozesuko gasen garbigailuari dagokiona, galbanizatuko eta lehorgailuko labearen errekuntza-gasen hustuketa-tximiniari dagokiona, eta mahuka-iragazkitik pasatu ondoren galbanizatuko gasen hustuketa-tximiniari dagokiona.

Plantak sortzen dituen hondakin nagusiak eta igorritako agirietan deskribatutakoak, koipegabetze- eta desugerketa-bainu agortuetatik eratorritako hondakin arriskutsuak dira.

Besteak beste, proiektuak teknika onenen erabilera (TOE) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu:

– Koipegabetze-etapa baten instalazioa eta jarduketarako baldintzen optimizazioa.

– Desugerketa eta zinkgabetzea gauzatzeko bainu bereizleak erabiltzea.

– Desugerketa-bainuaren kudeaketa eta kontrol optimizatua.

Subproceso	Capacidad de producción
Unidad transportadora	16 t/h
Tratamiento previo	15,96 t/h
Secador	15,96 t/h
Horno de galvanizado	16,6 t/h

La planta consumirá energía eléctrica con un consumo anual estimado de 1.200.000 Kwh, y gas natural (861.000 m^3) procedentes de las redes externas de suministro. El gas natural se emplea para la generación de calor en el secadero, horno de galvanizado y sistema de calefacción.

